



Andoain, 2020-11-06

***“Kazetaritza saria” eta “Komunikazio saria” emango dira, eta bakoitzerako lau finalista izendatu ditu epaimahaiak***

## **2020KO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU ZORTZI FINALISTA**

**Azaroaren 26an izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, “Xabier Lete gogoan” lelopean, eta han jakingo da nortzuk diren aurtengo saridunak**

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu ditu aurtengo finalistak. Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak, bederatzina mila eurokoak: “Kazetaritza saria” bata, eta “Komunikazio saria” bestea. Bi sarietarako launa finalista izendatu ditu epaimahaiak. Zortzi finalista horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo RAKSen saridunak. Hona finalistak:

<b><i>Kazetaritza saria</i></b>
<b>Arantxa Arza eta Felix Zubia, “Osasun Etxea” irratsaioagatik (Euskadi Irratia)</b>
<b>Miel Anjel Elustondo, “Tonban ehortzirik” testu sortagatik (Berrian argitaratuak)</b>
<b>Albiste Faktoriako lantaldea, 2019ko irailetik 2020ko iraila bitartean egindako saioengatik (Euskadi Irratia)</b>
<b>“Koronabirusaren azken datuak” atala egin duen lantaldea (Berriako atala)</b>

<b><i>Komunikazio saria</i></b>
<b>“Egunean behin” jokoa, CodeSyntaxen eskutik</b>
<b>“Ene kantak!” proiektu komunikatiboa, 2019-2020an emandako saltoagatik</b>
<b>Arteman, “Lur eta Amets” filmaren komunikazio prozesuagatik</b>
<b>Mendiak eta Herriak elkarte eta Et Incarnatus Orkestra, Urmuga proiektuaren spotagatik</b>

Finalisten artean azkenean bi saridunak nortzuk diren -Kazetaritza sariko irabazlea bata eta Komunikazio sarikoa bestea- sari banaketa ekitaldian jakingo da. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 26an izango da, ostegunarekin, Andoainen, Bastero Kulturgunean, iluntzeko 7etan egingo den ekitaldian. Finalistak ere bertan izango dira, eta beraiek ere orduan jakingo dute, ez lehenago, nortzuk diren saridunak.

Aurtengo sari banaketa ekitaldiak gogoan izango du Xabier Lete bere heriotzaren hamargarren urteurrenaren atarian. Xabier Leteren lana aitortu eta eskertzeko ere baliatuko da, beraz, RAKSen azaroaren 26ko sari banaketa ekitaldia. Bere musika eta kantuen bidez omenduko da Lete, honako musikari eta kantari hauen eskutik: Joxan Goikoetxea, Klara Mendizabal, Petti eta Antton Valverde.

Finalistak izendatu dituen eta sariak erabakiko dituen epaimahaia ondorengoek osatzen dute: Jose Inazio Basterretxea (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakasle izandakoa), Itxaro Borda (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), Aingeru Epaltza (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), Maite Goñi (MUko HUHEZiko irakaslea eta komunikazioan aditua), Elixabete Larrinaga (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), Ion Muñoa (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Graduko irakaslea), eta Jon Sarasua (MUko HUHEZiko irakaslea eta komunikazioan aditua). Mahaiburua Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, Mikel Arregi, eta idazkaria, Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria dira.



**Andoaingo Udala**

**Euskara Zerbitzua**